

BILDOTSAK

(JARRAIPENA)

Geroz, ondoren, aro barria jatorran. Eiztari-giroak ateak zabaldu jeutsezan artzai bizi-bideari. Lagun arterako lege obean zuan. Arrika ta makillaka txori ta pisti ondoren ibiltea baiño, artzai kantari izatea ez al dok erosoago, alaiago ta bikaiñago?

Alaitasunak ta bizitza egokiagoak izkuntza be bildots narruz jantzi juan. Euskera, aurrera, joian obetzen. Geroago ta pentsamentu sakonagoak jabiltzekak euskal bizitz alorretan. Len erbiak, ta orain, erbi ta bildotzak jabiltzekak saltari eguzki printzetan. Len, mendiak illun; orain, artalde zuriakaz irripar zuritan jagozek, egunez, mendi-egalak. Gabaz, txabola zarretan ardi-ama ta bildots umeak maitasun eztitan gozorik. Berez jatok bizitza barria, izkuntz legea aberastuten. Lengo lan ezaupideei jakituri barria ezarten jeutsen.

Artxoen jaiotzak len barriak... bildotsa lepoan artuta jatok artzaiña, arrats-beran, mendi tontoretetik ardi-txabolara. Gero, esne barria, ugari baldak artu alan, bizitz mueta barriak sortzen. A zuan langintza bizigarria! Etxeko andre maratza ta senar artzain trebea, alkarri lagunduz, gaztai gozoak egiten. Giro barri artan jabiltzekak izkuntzaren atal barriak sortzen, euskeraren arloa zabaltzen. Mendiak, arruak, ardiak, jaiotzak, bildotsak ederrak diran ezkeroz, euskera be, era be-

rean, edertzen joian. Eiztari usaiña galdu barik, artzain giroa artu juan. Usaiña ta gozamina, biak

eder, ta gure berbetearen izakerea arranoaren antzera, egaz mintzatzan ta edertzen.

PAULIN



Urrillaren 19'an Landajuela'tar Andoni gure landike ta adiskiaren urteurrena ospatu genduan.

G. B.

OLERTI-EGUNA (1983)

Aspalditik asita urtero ospatu izan dogu Olerti-Eguna aurten be eudiko dogu, Jainkoa lagun.

Aurretiaz iragarten jatzua olerkari ta bertsolari guztioi: Bizkortu zaitere zuen lanak bialtzeko. Bartzuk illabeteak dirala artuta daukaguz.

GAIK betikoak izango dira:

I) **Lirika-sailla**, edozein gai ta neurritz osoturiko lan bat.

II) **Poema-sailla**, euskal oiturai buruzko poema obeto ikusia dala.

III) **Bertsolarien sailla**, sei bat bertso-muin bereziz biribildua.

Bial lanak alik ariñen, urril onen azkenerako bai beintzat.

Zuzenbidea: A. Onaindia, Zornotza-Larrea. Ba-dakizue zelan.

Egitaraua: —Eguna, azillaren 20'an, igandez, Kristo Eregeren egunean. Ordurako emen izango dogu «Olerti» aldizkaria be, igaz emen sarituak izan ziran olerkiak eta beste askogaz jatzia.

—Ordua: 11 1/2'etan meza abestua, ondoren sari-banatzea, itzaldiak, alkar-izketa ta alkar bazkaria.

OARRA: Egun orretan Zeauri'ko apaiz izan zan G. Manterola omenduko dogu, beste urte batzutan beste batzukaz egin dogunez.

A. ONAINDIA